

## ETXEGINTZAKO HIZTEGIA PRESTATZEKO BATZORDEA

Dakizuten bezala, Euskaltzaindiari eskabide bat egin zaio hon-taz: Arkitektura edo Etxegintzako euskal hiztegitxoia egin dezala, alegia.

Eskabide horri men eginez, eta lan hau prestatzeko, Batzorde bat jarri behar zela pentsatu zen. Euskaltzainburugoak, bada, izen lerrokada hau proposatzen dio Batzarreari; baina, jakina, izen hauek gehi, gutxi nahiz alda egin ditezke. Eta batez ere, ea mugaz beste aldean inor hartarakorik ote den jakin nahi luke.

*Atal eragilerako:*

*J. M. Barandiaran*, euskaltzaina

*Joan San Martin*, Euskaltzaindiko Idazkaria

*Jesus Elozegi*, euskaltzain laguntzailea.

Atal Eragile honen buru, Barandiaran jauna. Idazkari, berriz, Elozegi jauna.

*Kontseilari Atalerako:*

*J. M. Zumalabe*, «Aparejador» delakoa

*Ambrosio Zatarain*, euskaltzain laguntzaile jaun injeniurra

*Castor Uriarte*, arkitektua.

*P. Lafitte*, euskaltzaina

Donostia, 27 - 11 - 70

## EUSKALTZAINDIAK DONOSTIAN DUEN ORDEZKARITZA

Donostiako Ordezkaritza osatzeko, hirukote hau proposatzen du Euskaltzainburugoak:

*Aingeru Irigarai*, jaun euskaltzaina, buru bezala

*Carlos Santamaria* jauna, laguntzailea, kontseilari bezala

*Salvador Garmendia* jauna, laguntzailea, idazkari bezala.

Donostia, 27 - 11 - 70